

# BEHAR KONPLEXUAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO GAUEKO HARRERA

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Gizarte bazterketa egoeran dagoen pertsona > Aldi baterako edo egonaldi luzeko ostatu zerbitzua**

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

## Zertan datza zerbitzu hau?

Gaueko baliabidea, bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen, batez ere etxerik gabeko pertsonen, gaua pasatzeko baliabidea eskaintzen diena ([2.3.2 fitxa](#)). Beren behar bereziak direla-eta (jokabide-nahasteak, eriondoa, ospitaleko alta berria, abstinentzia-sindromea...) udaleko harrera-zerbitzuetan artatu ezin diren pertsonen zuzenduta dago. Ostatu-gauaz gain, baliabide hauek honako hauek eskaintzen dituzte:

- Informazioa eta orientazioa,
- jarraipenaren balorazioa,
- esku-hartze psikosoziala (entzute aktiboa eta euste emozionala),
- gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea (higiene-trebetasunak, osasunerako hezkuntza-jarraibideak),
- drogaletasun-arazoak dituzten pertsonentzako xiringak trukatzeko zerbitzua.

Otordu zerbitzua (afaria eta/edo gosaria), higiene pertsonala, garbitegia edo larrialdietako oinarrizko arropa ere izaten dute.

## Nork jaso dezake zerbitzu hori?

18 urte edo gehiago dituzten pertsonak, **gizarte bazterketa egoeran daudenak eta behar konplexua dutenak**, gaua pasatzeko lekua behar dutenak.

## Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- 18 urte edo gehiago izatea.
- Udalaren arretarako harrera-zerbitzuetan arreta ematea zailtzen duten inguruabarrak (jokabide-nahasmenduengatik, ospitaleko altaren osteko susperraldiagatik edo abstinentzia-sindromeagatik).
- Preskripzio teknikoa, zuzeneko sarbideko zerbitzutzat hartzen delarik, hau da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak aurretik pasatu gabe sar daiteke zerbitzura.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua.

## Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

## Non eska dezaket zerbitzua?

**Zuzeneko sarbideko** zerbitzutzat hartzen dira, beraz, Gizarte Zerbitzuetatik aldeztu aurretik pasatu beharrik izan gabe sar daiteke. Edozein kasutan, zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzura** jo dezakezu.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

## Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

## Informazio gehiago:

- [Behar konplexuak dituzten pertsonentzako gaueko harrera Araban](#)
- [Behar konplexuak dituzten pertsonentzako gaueko harrera Bizkaian](#)
- [Behar konplexuak dituzten pertsonentzako gaueko harrera Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)